

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2009.10.27**

Tolosako Udaletxean, 2009ko urriaren 27an, En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19,30 19,30tan, lehen deialdia egin ondoren, horas del día 27 de octubre de 2009, se reúne el Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria y egiteko. Mahaiburu, Jokin Bildarratz Sorron, primera convocatoria, bajo la presidencia del Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta alcalde, Jokin Bildarratz Sorron, y la asistencia ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide de los miembros que se expresan, a fin de tratar hauek agertu dira: sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Jokin Bildarratz Sorron

Bertaratutako zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal  
Jose Andueza Oyarzabal  
Ainhoa Etxeberria Aranburu  
Jokin Azkue Arrastoa  
Yurre Peñagaricano Zubeldia  
Jon Aldazabal Etxeberria  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren

Aitzol Arocena Zufiria  
Onintza Lasa Arteaga  
Nerea Letamendia Belloso  
Oscar Hugo Renedo Nieto  
Jose Luis Vilanova Alonso  
Angel Bernardo Yañez Ares  
Enrique Torquemada Sanchez

Ez bertaratutakoak:

Andoni Iturzaeta Arbillaga

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

### **Eguneko gai zerrenda**

### **Orden del día**

1.- Ondorengo akta onartzea:

2009ko irailaren 29ko Osoko Bilkurakoa.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2009ko irailaren 23tik urriaren 21era (1797/2009- 2046/2009).

1.- Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria del 29 de septiembre de 2009.

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 23 de septiembre al 21 de octubre de 2009 (1797/2009- 2046/2009).

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

- |  |  |
|--|--|
| 3.-Tolosako Udalean Administrazio elektronikoen arautzen duen ordenantza. Hasierako onespena.  | 3.-Ordenanza reguladora de Administración electrónica en el Ayuntamiento de Tolosa. Aprobación inicial.  |
| 4.-“Konekta <a href="mailto:zaitetz@banda">zaitetz@banda</a> zabala” proiektuaren barruan, banda zabaletako azpiegiturak EAE-n toki mailan hedatzeko diru-laguntzarako eskaera (Ugaran). | 4.- Solicitud de ayuda económica para el despliegue local de infraestructuras de banda ancha en el territorio de la CAE, en el marco del proyecto “Konekta <a href="mailto:zaitetz@banda">zaitetz@banda</a> zabala” ( Ugaran). |
| 5.-2010erako Ordenantza Fiskalak aldatzea.   | 5.- Modificación de las Ordenanzas Fiscales para el 2010.  |
| 6.-Tolosako Udaleko Hitzarmen Urbanistikoen erregistroa eratzeko araudia. Hasierako onespena.  | 6.-Ordenanza reguladora del Registro de Convenios Urbanísticos del Ayuntamiento de Tolosa. Aprobación Inicial.   |
| 7.- Hiri ordenazioko Plan Orokorraren aldaketa puntuala “14.3 Berazubi Ikastetxea” azpieroemari dagokiona. Hasierako onespena.   | 7.-Modificación puntual del Plan General de ordenación urbana relativa al subámbito “14.3 Berazubi Ikastetxea”. Aprobación inicial.  |
| 8.- Erregu-galderak.   | 8.- Ruegos y preguntas.  |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko: A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

### 1.- Ondorengo akta onartzea:

**2009ko irailaren 29ko Osoko Bilkurakoa.**

### 1.- Aprobación de la siguiente acta:

**Sesión Ordinaria del 29 de septiembre de 2009.**

...Enrique Torquemada Sanchez, concejal de EB-Aralar, indica que no se han recogido las aportaciones que se hicieron desde el público en la sesión anterior y pide que se recogan, a lo que el Secretario le contesta que así se hace, que se recoge en soporte audio-visual. Alkateak, hitza hartuz, eskatu du Batzar aretoko parte hartzeak eta gertatzen denaren espiritua jasotzea aurrerantzean.

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

### 2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

**2009ko irailaren 23tik urriaren 21era (1797/2009- 2046/2009).**

### 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

**Del 23 de septiembre al 21 de octubre de 2009 (1797/2009- 2046/2009).**

2009.10.27

Alkatetzak, 2009ko irailaren 23tik urriaren 21era bitartean (17972009-2046/2009) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei, eta Udaltzabaldiak jakinaren gainean geratu dira.

**3.-Tolosako Udalean Administrazio elektronikoen arautzen duen ordenantza. Hasierako onespina.**      **3.-Ordenanza reguladora de Administración electrónica en el Ayuntamiento de Tolosa. Aprobación inicial.**

Ekainaren 22ko 11/2007 Legearen baitan, herritarrek zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, 2009ko abenduaren 31rako tokiko administrazioek aukera eman behar die herritarrei baliabide elektronikoen erabilera baliatuz administrazioarekin harremanak bideratu ahal izateko.

Horregatik, udalak ordenantza bidez gai hau arautzeko beharra ikusi du herritarrei ahal den zerbitzu eta aukera gehien eman ahal izateko udalarekiko harremanetan.

Hortaz, ikusirik idazkariak egindako txosten juridikoa eta jarraitu beharreko prozedura, eta kontuan hartuz Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak jaulkitako aldeko diktamena, Udaltzabak, aho batez,

**ERABAKI DU:**

Lehen.- Tolosako udaleko administrazio elektronikoen ordenantza erregulatzailari hasierako onarpenera ematea ( I Anexoa).

Bigarren.- Ordenantza informazio publikoan jartzea eta interesatuei audientzia ematea, iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hogeita hamar egunetako epean, nahi dituzten alegazio zein iradokizunak aurkez ditzaten.

Hirugarren.- Alegazio zein iradokizunik ez balego, aipatu Ordenantza behin-betiko izaeraz onartzea.

**4.-“Konekta [zaitiez@banda](mailto:zaitiez@banda) zabala” proiektuaren barruan, banda zabaletako azpiegiturak EAE-n toki mailan hedatzeko diru-laguntzarako eskaera (Ugaran).**      **4.- Solicitud de ayuda económica para el despliegue local de infraestructuras de banda ancha en el territorio de la CAE, en el marco del proyecto “Konekta [zaitiez@banda](mailto:zaitiez@banda) zabala” ( Ugaran).**

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ-PNV: “*Aspaldiko kontua da, Aldabako Ugane auzoan interneta ezin zen jarri. Orain, satellite bidez, posible izango da eta, gainera, diruz lagunduko den proiektu bat da.*”

Hori horrela, Hirigintzako batzordeak aurkeztutako diktamena ikusirik, erabaki hau hartu da:

Konekta [Zaitiez@Banda](mailto:Zaitiez@Banda) Zabala proiektuaren barruan, interneterako banda zabaleko sarrera-zerbitzuak emateko laguntza-neurriak ezartzeko den Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko

Dada cuenta de la Orden de 1 de agosto de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que establece las medidas de apoyo para dotar de servicios de acceso a Internet de banda ancha en el marco

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

abuztuaren 1eko Agindua kontuan hartuta, zehazki, diru-laguntzaren xedeari eta eskaera izapidetzeari dagokienez 4.3 eta 11.2 artikuluetan ezarritakoa, Udal honek Osoko Bilkuran honako hau

del proyecto Konekta [Zaitetz@Banda](mailto:Zaitetz@Banda) Zabala, en concreto lo dispuesto en el artículo 4.3. y 11,2 en relación con el hecho subvencionable y tramitación de la solicitud, este Ayuntamiento en Pleno,

### ERABAKI DU:

-Ondoren adierazten den Proiektu Teknikoa aipatutako diru-laguntzen deialdian sartzeko eskatzea. Proiektuak beharrezkoa duen dokumentazioa darama.

Proiektuaren izena: "Ugaranentzat Interneteko Proiektua".

### ACUERDA:

-Solicitar la inclusión en la referida convocatoria de ayudas del Proyecto Técnico que a continuación se relaciona, al que acompaña la correspondiente documentación.

Título del proyecto: "Proyecto Internet para Ugaran".

### **5.- 2010erako Ordenantza Fiskalak aldatzea.**

### **5.-Modificación de las Ordenanzas Fiscales para el 2010.**

Lehenik 2010erako Ordenantza Fiskalak aldatzeko diktamenaren berri eman da eta jarraian honako parte hartze eta emendakinak aurkeztu dira:

... Jokin Azkue Arrastoak, EAJ-PNVko zinegotziak, 2009ko urriaren 13ko Ogasun batzordean gai honi buruz hartutako diktamenaren goraberak azaltzen ditu, bertan tasen %0,5eko igoera aurreikusten da.

... Alkatea: *"Iaz hartu zen konpromisoa 4 urtetan %20aren igoera aplikatzekoa zaborrari, baina, krisia dela eta, aurtan berkontsideratzea eskatu da. Mankomunitateari eskatu zaio esfortzu bat eta onartu egin du."*

... Enrique Torquemada Sanchez, EB-Aralar. *"Teniendo en cuenta la situación actual, nuestro planteamiento es congelar todos los impuestos. Por otra parte, pido que se replantee la subida del comedor social y el tema de las viviendas sociales."*

... Angel Yañez Ares, PPko zinegotziak, hondorengo emendakinak aurkezten eta azaltzen ditu:

### "ENMIENDAS PARCIALES A LAS ORDENANZAS FISCALES PARA 2010.

Tras el análisis realizado en la Comisión de Hacienda para establecer las Ordenanzas fiscales del próximo año 2010, nos vemos obligados a presentar las enmiendas que más abajo se indican.

De la propuesta del tipo de incremento general de un 0,5 % para todas las tasas e impuestos debiera de excluirse los siguientes:

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

1.- "Servicio de recogida y eliminación de basuras"

2. "Aparcamiento limitado en la vía pública-Aparcamiento para residentes-tarjeta anual".

En ambos casos el incremento que planteamos es del 5 %.

Se justifica el primer caso al tener en cuenta el gran déficit que ocasiona el servicio, por la necesidad de aproximarnos al coste real y la conveniencia de anticiparnos al previsible gran incremento que nos anuncian por el tratamiento general por la Mancomunidades del problema de la eliminación de las basuras.

El segundo caso se justifica poniendo en valor el espacio, escaso en muchos lugares, de 12,00 metros cuadrados de media que ocupa un vehículo y se compara con cualquier otra tasa de ocupación de vía pública.

Estas enmiendas nos producen el siguiente resultado:

		<u>2009 - Incremento</u>	
Recogida y eliminación de basuras.-Vivienda	83,20 €	79,20	4,00 €
Tarjeta de residente.	37,50 €	35,70	1,80 €

Considerando que están sobradamente justificadas estas enmiendas confío que serán asumidas por el Pleno de la Corporación a cuya aprobación se presentan. "

... Oscar Renedo Nieto, PSOE: "Teniendo en cuenta que el año está siendo muy difícil, creemos que la propuesta de modificación presentada es una medida adecuada."

... Onintza Lasa Arteaga, EA: "Ez dugu gaizki ikusten proposamen hau, ingresoak begiratu behar dira, baina gastuak ere bai. Kosto igoera gutxi dago. Enrique Torquemada Sanchez zinegotziak aurkeztu duen kezka ere agertu genuen batzordean eta argitu zitzaigun. Komedorean aldaketa bat eman da, bonifikazioa jasotzerakoan azaldu genuen; garai batean betebeharrak batzuk behar izan ziren, eta orain aldatu egin da, baina ez zerbitzua okertuz. OTArekin ez dator bat, ikaragarritzko arazoak daude aparkatzeko, eta egoera ez dakit nola hartu. Zaborrari buruz, oso konplexua bada, aztertu eta jorratu egin beharko da."

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV: "Zerbitzu sozialetan bonifikazio sistemak egiten dena da zabaldu Gobernuak eta Aldundiak jartzen dituen programa guztietara".

... Alkateak beste datu bat ematen du: "Hemengo erreflexioak jaso egin behar dira, eta zaborrarena oso puntu importantea da; gai honi buelta pare bat eman behar zaizkio. Industriaguneari ere buelta bat eman behar zaio. Bukatzeko, datu bat, 2009ra begira eta 2010eko tasak kontuan hartuz, Tolosa izango da tasan igoera mediatik erdian geratuko dena beste herriekin konparatuta."

Guztia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, lehenik, aurkeztutako emendakinak bozketara jarri ditu, eta ez dira onartu PPko zinegotziaren aldeko botoarekin eta gainontzeko guztien aurkakoarekin.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

Jarraian, Udalbatzak, gehiengoz, PPko eta EB-Aralarko aurkako botoarekin,

### ERABAKI DU:

Lehenik.- Ogasun batzordeak aurkezturiko diktamena, 2010erako Ordenantza Fiskalen aldaketari dagokiona, behin-behingo bere egitea.

Bigarren.- Hartutako akordioa eta bideratutako espediente jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epez, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko boletinean eta egunkaririk zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz.

Hirugarren.- Aipatutako erabakia behin betikoa jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzera joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanez edo aipatu aldaketen behin-betiko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendaurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betikoz onartutakotzat joko baitira.

Aipatutako diktamenak:

2010rako Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena banatu zitzaizen batzordekideei 2009ko urriaren 13ko Ogasun batzordean. 2009ko urriaren 22ko Ogasun batzordean, aurreko proposamenean 3 aldaketa egitea proposatu da: OHZ-ren zerga-tasa, ibilgailuen aparkaldi mugatuaren tarifak eta ibilgailuen zergan minusbaliotasunagatik salbuesteko eskaria egiteko epea luzatzea.

EAJ, EA eta PSOE-ren aldeko botoekin proposamen hau diktaminatu da.

PP-k, ordea, proposamenarekin duen desadostasuna erakutsi du. Zergak eta tasak ez igotzea proposatzen du. Honen salbuespen bezala "Zabor bilketa eta ezabaketa" eta "Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoa"-ren "Bertakoentzko aparkalekua" atala proposatzen du, hauek % 5 igoaz.

Beraz, batzordeak diktaminatu du, EAJ, EA eta PSOE-ren aldeko botoekin eta PP-ren

El día 13 de octubre de 2009, en la comisión de Hacienda se entregó a los asistentes la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2010. En la comisión de Hacienda del día 22 de octubre de 2009, se han propuesto 3 cambios sobre la propuesta anterior: tipos de gravamen del IBI, las tarifas de la OTA y la fecha límite de solicitud para la exención por motivo de minusvalía.

Se dictamina esta propuesta con el voto favorable de PNV, EA y PSOE.

PP, en cambio, ha mostrado su disconformidad con la propuesta. Y propone congelar todos los impuestos y tasas, salvo la tasa de "Servicio de recogida y eliminación de basuras" y dentro de la de "Estacionamiento limitado de vehículos en la vía pública" el apartado de "Aparcamiento para residentes- tarjeta anual", que, en su opinión deben tener ambas un incremento del 5%.

Por tanto, la comisión dictamina aprobar la siguiente propuesta de modificación de las

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

kontrako botoarekin, ordenantza fiskalak aldatzeko ondorengo proposamena onartzea:

ordenanzas fiscales con el voto favorable de PNV, EA y PSOE y con el voto en contra del PP:

**ORDENANTZA OROKORRA, ZERGAK ETA UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO.**

**ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN Y RECAUDACIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES**

1. Eranskineko datak aldatzea diktaminatzen da:

Se dictamina modificar las fechas del Anexo I:

KONTZEPTUA CONCEPTO	ALDIA PERIODO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
Urtean behin ordaintzen diren zergak <b>Tributos de periodicidad anual</b>			
- Ibilgailuen zerga - <i>Impuesto sobre vehículos</i>	2010	05.03.2010 - 14.04.2010	Borondatezko epearen azken egunean <u>Ultimo día del periodo voluntario</u>
- Ondasun higiezinaren zerga - <i>Impuesto sobre Bienes Inmuebles</i>	2010	14.05.2010 - 30.06.2010	Borondatezko epearen azken egunean <u>Ultimo día del periodo voluntario</u>
- Jarduera ekonomikoen zerga - <i>Impuesto s/ Actividades Económicas</i>	2010	01.10.2010 - 10.11.2010	Borondatezko epearen azken egunean <u>Ultimo día del periodo voluntario</u>
- Zaborren tasa - <i>Tasa de Basuras</i>	2010	01.06.2010 - 07.07.2010	Borondatezko epearen azken egunean <u>Ultimo día del periodo voluntario</u>
- Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa - <i>Tasa de entrada vehículos y vados</i>	2010	01.06.2010 - 07.07.2010	Borondatezko epearen azken egunean <u>Ultimo día del periodo voluntario</u>
-Kutzazain automatikoen tasa - <i>Tasa de cajero automático</i>	2010	01.06.2010 - 07.07.2010	Borondatezko epearen azken egunean <b>Ultimo día del periodo voluntario</b>

KONTZEPTUA CONCEPTO	ESKAERA EPEA PLAZO DE SOLICITUD
------------------------	------------------------------------

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

Ondasun higiezinaren zerga. Familia ugariaren hobaria Impuesto Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas	Urtarrilak 1- Otsailak 26 <i>1 de enero – 1 de marzo</i>
Ibilgailuen zerga. Minusbaliotasunagatik salbuesteko <i>Impuesto de vehículos. Exención por motivo de minusvalía</i>	Urtarrilak 1- Otsailak 15 <i>1 de enero – 1 de marzo</i>
Zaborren tasa. Hobariak. Tasa de recogida de basuras. Bonificaciones	Urtarrilak 1- Martxoak 31 <i>1 de enero - 31 de marzo</i>

### ZERGAK

#### 1.1. Ondasun higieziinei buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak errekuratzen dituen ordenantza fiskala

8.2 artikulua Ondasun Higiezinaren Zergaren kuotan % 50-%75-ko hobaria ematen dio familia ugariaren titular izaera duten sujetu pasiboek. Hobaria jasotzeko, derrigorrezkoa da familia unitateko kideren batek ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabe ez izatea:

*“ Hobari jasotzeko eskubidea galdu egingo da, familia unitateko kideren bat ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabea denean.”*

Kasu batzuetan salbuespena ezartzea diktaminatzen da, hain zuzen ere ondorengo kasuetan: 2008ko apirilaren 16ko Agindua 3. artikulua, etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza premiaren inguruko egoerari buruzkoak, aipatzen dituen kasuetan alegia. Kasu hauek, adibidez, ondorengoak dira: gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea, banantze edo dibortzio prozesu baten ondoren etxebizitza beste ezkontidearen familia-etxebizitza gisa judizialki esleitu bada...Artikulua horrela geratuko litzateke:

*“Hobaria jasotzeko eskubidea galdu egingo da, familia unitateko kideren bat ohiko bizilekuaz gain beste ondasun higiezin baten jabe denean. Kasu hauetatik kanpo geratzen dira 2008ko apirilaren 16ko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduko, etxebizitza epremiaren inguruko egoerari buruzkoa, 3. artikuluan azaltzen diren*

### IMPUESTOS

#### 1.1. Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre Bienes Inmuebles

El artículo 8.2 concede una bonificación del 50 %- 75 % de la cuota íntegra del Impuesto de Bienes Inmuebles a aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa. Para este disfrute, es necesario que los miembros de la unidad familiar no sean titulares, además del de la residencia habitual, de otro bien inmueble.

*“No se tendrá derecho a la bonificación cuando cualquiera de los miembros de la unidad familiar sean titulares, además del de la residencia habitual, de otro bien inmueble.”*

Se dictamina añadir “salvo en situaciones excepcionales señaladas en el artículo 3 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre circunstancias de necesidad de vivienda.” Estas situaciones se refieren, por ejemplo, a viviendas que no reúnen condiciones mínimas de habitabilidad, que haya sido designada judicialmente como domicilio familiar del otro cónyuge tras un procedimiento de separación o de divorcio...El artículo quedaría así:

*“No se tendrá derecho a la bonificación cuando cualquiera de los miembros de la unidad familiar sean titulares, además del de la residencia habitual, de otro bien inmueble, salvo en situaciones excepcionales señaladas en el artículo 3 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre circunstancias de*

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

*etxebizitzak.*”

Zerga tipoei dagokienez, diktaminatu da haiek ezartzea, 2009ko erroldak %0,5 ko gehikuntza izateko moduan. Ehuneko hori da erabiltzen den irizpide orokorra zenbatekoak igotzeko edo eguneratzeko KPIaren arabera.

Kontuan harturik Foru Aldundiak 2010 urterako balio katastralak ez aldatzea aurreikusi duela eta depreziazioa % 1-koa izango dela gutxi gora behera, zergaren koefizienteak honela geratuko dira:

*necesidad de vivienda.* ”

Por lo que respecta a los tipos impositivos, se propone establecer los mismos de manera que el padrón del 2009 se incremente en un 0,5 %, porcentaje utilizado como criterio general de aumento o de actualización en función del IPC.

Teniendo en cuenta que los valores catastrales previstas por la Diputación Foral para el año 2010 se van a mantener y que la depreciación será aproximadamente del 1 % se dictamina aumentar los coeficientes de la siguiente manera:

	2009	2010
Zoru industrialeko karga tasa <i>Tipo de gravamen en zona industrial</i>	0,4985%	<b>0,5061%</b>
Gainerako hiri ondasunetarako karga tasa <i>Tipo de gravamen en resto de zonas urbanas</i>	0,2694%	<b>0,2735%</b>

Era berean, diktaminatu da eguneratzea balio katastral maximoa, hobari hau familia ugarietara aplikatzeko. Horretarako, aplikatuko da 2010rako aurreikusitako eguneratze koefizienteak. Hortaz, balio katastralaren zenbatekoa 86.599,26 eurotan geratuko da.

Se dictamina también actualizar el valor catastral máximo a efectos de aplicación de la bonificación a familias numerosas, aplicando el coeficiente de actualización de los valores catastrales previsto para el 2010 quedando dicho importe en 86.599,26 euros.

Azkenik, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak dioten bezala, Zergaren salbuespenak azaltzen diren artikulua ezartzea diktaminatzen da:

“ 1. Hurrengo ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Estatuarenak eta toki entitateenak, baldin eta zuzenean herritarren segurtasunerako eta hezkuntzaren nahiz espetxeen zerbitzurako jarriak badira, eta Estatuak defentsarako dauzkanak.

b) Udalerrien jabetzako auzo ondasunak eta esku komuneko herri basoak. Era berean, salbuetsita egongo dira honako hauek:

1. Udalerrien, udal organismo autonomoen edo udalherri horiek erabat partizipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere

Finalmente, tal y como indica el artículo 15 de la Norma Foral de Haciendas Locales, se dictamina incluir un artículo que señale las exenciones del Impuesto:

“1. Estarán exentos los siguientes inmuebles.

a) Los que sean propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, del Estado y de las entidades locales, y estén directamente afectos a la seguridad ciudadana y a los servicios educativos y penitenciarios, así como los del Estado afectos a la defensa.

b) Los comunales propiedad de los Municipios y los montes vecinales en mano común. Asimismo, estarán exentos los bienes que sean propiedad de:

1. Los Municipios o de sus Organismos Autónomos o de sociedades íntegramente participadas por dichos Municipios, siempre

2009.10.27

*aipatutako udalerrien lurraldean kokaturik badaude.*

*2. Mankomunitateen, beren organismo autonomoen edo mankomunitate horiek erabat partizipatutako sozietateen jabetzako ondasunak, beti ere aipatutako mankomunitateek jarduten duten lurralde eremuan kokaturik badaude.*

*Indarrean dagoen testua*

*c) Gurutze Gorriarenak eta erregelamenduz zehaztuko diren gisa horretako beste entitateenak.*

*2. Era berean, eta eskaera aurrez aurkezturik, ondoko hauek salbuetsiko dira:*

*a) Erregelamenduz zehaztuko diren hazkunde moteleko espeziez landatutako mendien azalera, bere aprobetxamendu nagusia zura edo kortxoaren denean, baldin eta zuhaitziaren dentsitatea espezie horri berez dagokiona bada.*

*Orobat, baso berritzen edo birlandatzen diren mendien azalera, baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuei edo plan teknikoei jarraiki egiten bada. Paragrafo honetan aurreikusten den salbuespenak hamabost urtez iraungo du, eskaera aurkeztu ondorengo zergalditik aurrera kontatuta.*

*b) Eliza Katolikoarenak, Estatu Espainiarrak eta Vatikanoko hiriak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz sinatutako Akordioan jasotakoaren arabera, eta legez onartuta dauden elkarte konfesional ez-katolikoarenak, Konstituzioaren 16. artikuluan xedatutakoaren indarrez izenpetutako lankidetzak akordioetan ezartzen den eran.*

*c) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen indarrez salbuespen hau aplikagarri duten ondasun higiezinak, eta elkarrekotasun baldintza egonez gero, baita atzerriko gobernuenak ere, beren ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrek nahiz beren organismo ofizialek erabiltzekoak direnean.*

*d) Trenbideek hartutako lurrak eta lur horien gainean dauden eraikinak, baldin eta horiek geltoki edo biltegi gisa nahiz linea horiek*

*que estén enclavados en el territorio de los referidos Municipios.*

*2. Las Mancomunidades o de sus Organismos Autónomos o de sociedades íntegramente participadas por dichas Mancomunidades, cuando los bienes estén enclavados en el ámbito territorial de actuación de las referidas Mancomunidades.*

*c) Los de la Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determine.*

*2. Asimismo, previa solicitud, estarán exentos:*

*a) La superficie de los montes poblados con especies de crecimiento lento reglamentariamente determinadas cuyo principal aprovechamiento sea la madera o el corcho, siempre que la densidad del arbolado sea la propia o normal de la especie que se trate.*

*Asimismo, la superficie de los montes en que se realicen repoblaciones forestales o regeneración de masas arboladas sujetas a proyectos de ordenación o planes técnicos aprobados por la Administración forestal. La exención prevista en este párrafo tendrá una duración de quince años contados a partir del período impositivo siguiente a aquél en que se realice su solicitud.*

*b) Los de la Iglesia Católica, en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado español y la Santa Sede sobre asuntos económicos fechado el 3 de enero de 1979, y los de las asociaciones confesionales no católicas legalmente reconocidas, en los términos establecidos en los respectivos acuerdos de cooperación suscritos en virtud de lo dispuesto en el artículo 16 de la Constitución.*

*c) Los inmuebles a los que sea de aplicación la exención en virtud de Convenios Internacionales en vigor y, a condición de reciprocidad, los de los Gobiernos extranjeros destinados a su representación diplomática, consular, o a sus organismos oficiales.*

*d) Los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a*

2009.10.27

ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Beraz, ostalaritza establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritza eta aisialdi guneak, enplegatuentzako etxebizitzak, zuzendaritzako bulegoak eta lantegiak ez dira salbuetsita egongo.

e)8 Monumentu izaera duten edo monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko a) letran jasotako moduan. Salbuespen hau kalifikatuta nahiz inbentariatuta dauden kultur ondasunei aplikatuko zaie, beti ere uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, salbuetsita egongo dira monumentu multzo baten parte diren ondasun higiezinak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 2. artikulua 2 apartatuko b) letran jasotako moduan. Salbuespen Indarrean dagoen testua horrek bakarrik hartuko ditu babes bereziko edo babes ertaineko erregimenen barruan sartutako ondasun higiezinak, kalifikatuak izan edo inbentariatuak izan, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak jasotako beharkizunak betetzen badituzte.

Era berean, ondasun higiezinak salbuetsita egongo dira Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 44. artikuluan aipatutako arkeologia zonetan kokaturik daudenean –zona horiek Kultur Ondasun gisa izendatuta egon behar dute eta kalifikatuak nahiz inbentariatuak izan-, baldin eta eskuhartze arkeologikoren bat bertan egin ondoren, Eusko Jaurlaritzako Sailak erabakitzen badu aurkitutako aztarnak bertan mantendu behar direla ezer kendu gabe eta tokiz aldatu gabe.

f)9 Onarri ezargarria 600 eurotik gorakoa ez duten ondasunak.

g) Unibertsitate Publikoak bere helburuak betetzeko atxikita dauzkan ondasunak, eta hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuak, erabat edo zati batean itundutako ikastetxeak diren bitartean.

Apartatu honetan jasotako salbuespenak aplikatzeko, interesatuek eskaera aurkeztu

estaciones, almacenes o a cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas.

No están exentos, por consiguiente, los establecimientos de hostelería, espectáculos, comerciales y de esparcimiento, las casas destinadas a viviendas de los empleados, las oficinas de la dirección ni las instalaciones fabriles.

e) Los bienes inmuebles que tengan la condición de monumento a que se refiere la letra a) del apartado 2 del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes culturales calificados como inventariados, siempre que se reúnan los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio.

Igualmente estarán exentos los bienes inmuebles que formen parte de un conjunto monumental a que se refiere la letra b) del apartado 2 del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención sólo alcanzará a los inmuebles, calificados o inventariados, que reuniendo los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio, estén incluidos dentro de los regímenes de protección especial o de protección media.

Asimismo, estarán exentos los bienes inmuebles que se encuentren dentro de una zona arqueológica a que se refiere el artículo 44 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, declarada como Bien Cultural, tanto sea calificada como sea inventariada, y siempre que, tras haber sido objeto de algún tipo de intervención arqueológica, el Departamento correspondiente del Gobierno Vasco haya establecido la necesidad de mantener en los mismos los restos encontrados, sin que puedan ser eliminados ni trasladados.

f) Los bienes cuya base imponible no supere la cantidad de 600 euros.

g) Los bienes propiedad de la Universidad Pública que estén afectos al cumplimiento de sus fines y los centros docentes privados acogidos al régimen de conciertos educativos, en tanto mantengan su condición de centros total o parcialmente concertados.

Para la aplicación de las exenciones

2009.10.27

*behar diote aldez aurretik udal eskudunari.*

*Ematen diren salbuespenek eskaera egin eta ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.*

*previstas en este apartado 2, los interesados deberán solicitarlo de forma previa al Ayuntamiento.*

*Las exenciones que se concedan surtirán efectos desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud.”*

**1.2. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainarazteko zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala**

Beste udalek zer koefiziente erabiltzen dituzten ikusita, batzordeak diktaminatu du % 0,5ko igoera orokorra aplikatzea. Hori horrela, 2009ko Ordenantzetako 2. Eranskinean agertzen % 2,16ko koefiziente bakarra, 2010an % 2,17koa izango da.

Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Araueko 15. artikulua dio ordenantzek gutxienez, honakook barruhartu beharko dituzte: egintza ezargarri, sujetu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena. Beraz, eduki hori ezarriko dugu:

*“Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga izaera erreala duen zuzeneko zerga da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan enpresa, lanbide edo arte-ihardueretan aritze hutsa dugu bere egitate zergagarria, iharduera horiek jakineko tokian eginedo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon ala ez.*

**1. Honako hauek salbuesten dira Zergatik:**

a) *Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta udal entitateak, eta, orobat, lurralde administrazio publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.*

b) *Beren jarduera hasten duten subjektu pasiboak, jarduera garatzen duten zerga honen lehen bi zergaldietan.*

c) *6 2.000.000 eurotik beherako eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak.*

d) *Gizarte Segurantzaren entitate*

**1.2. Ordenanza fiscal reguladora de determinadas facultades para la exacción del Impuesto de Actividades Económicas en el Municipio**

A la vista de la información sobre los coeficientes utilizados por otros Ayuntamientos, se dictamina aplicar el incremento general del 0,5 %. Por lo tanto, el coeficiente único del Anexo 2 de la Ordenanza pasa del 2,16 % del año 2009, al 2,17 % para el año 2010.

Tal y como señala el artículo 15 de la Norma Foral de Haciendas Locales, las Ordenanzas Fiscales contendrán al menos la determinación del hecho imponible, sujeto pasivo, responsables, exenciones, reducciones y bonificaciones, tipo de gravamen o cuota tributaria, periodo impositivo y devengo.

Por lo tanto, vamos a incluir ese contenido:

*“El Impuesto sobre Actividades Económicas es un tributo directo de carácter real, cuyo hecho imponible está constituido por el mero ejercicio, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de actividades empresariales, profesionales o artísticas, se ejerzan o no en local determinado y se hallen o no especificadas en las tarifas del Impuesto.*

**1. Están exentos del Impuesto:**

a) *El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y las Entidades Municipales, así como los organismos autónomos y entidades de derecho público de análogo carácter de las citadas Administraciones Públicas territoriales.*

b) *Los sujetos pasivos que inicien el ejercicio de su actividad, durante los dos primeros períodos impositivos de este Impuesto en que se desarrolle la misma.*

c) *Los sujetos pasivos que tengan un volumen de operaciones inferior a 2.000.000 euros.*

d) *Las Entidades gestoras de la Seguridad*

2009.10.27

kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko mutualitateak.

e) Ikerkuntzako organismo publikoak, maila guztietako irakaskuntza zentroak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Foru Aldundiaren edo udal entitateen fondoekin nahiz ongintzazkoak edo herri onurakoak izendatutako

fundazioen baliabideekin osorik finantzatuak, eta, orobat, irabazi asmorik gabekoak izanik, hezkuntza-itunen erregimenean dauden ikastetxeak, beren maila guztietan, baita euren ikasleei liburu edo artikuluak eman edo mantenu erdia zein barmetegia eskaintzen dizkietenean ere, nahiz eta salbuespenez baino ez, irakasteko erabilitako tailerretan lortutako produktuak establezimenduan bertan saltzen diren, baldin eta salmentaren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

f) Gutxitu fisiko, psikiko eta sentsorialen irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioak, pertsona minusbaliatuen alde irakaskuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta tutoretza mailan egiten dituzten pedagogia, zientzia, laguntza eta enplegu jarduerengatik, baita xede horietara zuzendutako tailerretan lortutako produktuak saltzen badituzte ere, baldin eta salmenta horren zenbatekoa, ezein partikular edo hirugarren batentzat erabilgarria izan gabe, soil-soilik lehengaiak erosi edo establezimenduari eusteko erabiltzen bada.

g) Martxoaren 24ko 5/1995 Foru Arauak, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga pizgarriak ematekoak, jasotakoaren arabera, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan salbuespenaren zerga onura aitortua duten entitateak.

h) Elkarteen Erregistroan inskribatutako irabazi asmorik gabeko elkarteak, baldin eta udalarekin batera lankidetzan jarduerak burutzeagatik bertako organo eskudunak herri onurakoak izendatu baditu.

Salbuespena elkarte horien berezko zeregin diren eta gutxienezko udal kuotaekin zergapetzen diren jarduerari aplikatuko zaie.

i) Salbuespena nazioarteko itun edo hitzarmenen indarrez aplikagarri duten

Social y las Mutualidades de previsión social constituidas de conformidad con la legislación vigente.

e) Los Organismos Públicos de investigación, los establecimientos de enseñanza en todos sus grados costeados íntegramente con fondos del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral o de las Entidades Municipales, o por Fundaciones declaradas benéficas o de utilidad pública, y los establecimientos de enseñanza en todos sus grados que, careciendo de ánimo de lucro, estuvieren en régimen de concierto educativo, incluso si facilitasen a sus alumnos libros o artículos de escritorio o les prestasen los servicios de media pensión o internado y aunque por excepción vendan en el mismo establecimiento los productos de los talleres dedicados a dicha enseñanza, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine, exclusivamente, a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

f) Las asociaciones y fundaciones de disminuidos físicos, psíquicos y sensoriales, sin ánimo de lucro, por las actividades de carácter pedagógico, científico, asistencial y de empleo que para la enseñanza, educación, rehabilitación y tutela de minusválidos realicen, aunque vendan los productos de los talleres dedicados a dichos fines, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine exclusivamente a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

g) Las entidades a las que la Norma Foral 5/1995, de 24 de marzo, de Incentivos Fiscales a la participación privada en actividades de interés general reconoce el beneficio fiscal de la exención en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

h) Las Asociaciones sin ánimo de lucro, inscritas en el Registro de Asociaciones correspondiente, que por realizar actividades de colaboración con el municipio sean declaradas de interés municipal por el órgano competente del mismo.

La exención alcanzará a las actividades que constituyan su finalidad específica gravadas con cuota mínima municipal.

i) Los sujetos pasivos a los que les sea de aplicación la exención en virtud de Tratados

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

subjektu pasiboak.

o Convenios Internacionales.

*Pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen diren entitateak izango dira zergaren subjektu pasibo, baldin eta zerga-gaiaren sorburu diren jardueretako edozein Gipuzkoan egiten badute.*

*Son sujetos pasivos de este Impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria siempre que realicen en el Territorio Histórico de Gipuzkoa cualquiera de las actividades que originen el hecho imponible."*

**1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergako kuotak zehazteko funtsezko elementuak erregulatzeko dituen Ordenantza Fiskala.**

**1.3. Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.**

Tarifak aldatzea diktaminatzen da % 0,5ko igoera aplikatuz, baina Foru Arauak ezarritako mugarekin, 2,2 koa alegia. Hau da: 2,17 koefizientea 2,19ra pasatzea, 2,09 2,11ra eta 2,18 2,20ra.

Se dictamina modificar las tarifas aplicando un incremento del 0,5 %, con el límite del 2,2 que establece la Norma Foral, pasando el coeficiente de 2,17 a 2,19, el de 2,09 a 2,11 y el de 2,18 a 2,20.

Hortaz, ordenantzaren eranskina honelaxe geratu da:

Por tanto, el anexo de la ordenanza queda de la siguiente manera:

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	POTENCIA Y CLASE DE VEHICULO	Coeficiente 2009	Coeficiente 2010
A) <u>TURISMOAK</u>	A) TURISMOS		
9 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 9 c.f.	2,17	2,19
9 – 11,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 9 hasta 11,99 c.f.	2,17	2,19
12 – 13,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 12 hasta 13,99 c.f.	2,17	2,19
14 – 15,99 zaldi f.bitartekoak	- de 14 hasta 15,99 c.f.	2,17	2,19
16 – 19,99 zaldi f.bitartekoak	- de 16 hasta 19,99 c.f.	2,17	2,19
20 zaldi fiskaletik gorakoak	- de 20 c.f. en adelante	2,17	2,19
B) <u>AUTOBUSAK :</u>	B) AUTOBUSES		
21 plaza bitartekoak	- De menos de 21 plazas	2,09	2,11
21 - 50 plaza bitartekoak	- de 21 a 50 plazas	2,09	2,11
50 plazaatik gorakoak	- de más de 50 plazas	2,09	2,11
C) <u>KAMIOIAK:</u>	C) CAMIONES		
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	- De menos de 1000kg.carga util	2,09	2,11
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2999 kgs. " "	2,09	2,11
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.	- de más de 2999 a 9999 Kgs. " "	2,09	2,11
9.999 kg-tik gorako k.e	- de más de 9999 Kgs. " "	2,09	2,11
D) <u>TRAKTOREAK</u>	D) TRACTORES		
16 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 16 c.f.	2,09	2,11
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	- de 16 a 25 c.f.	2,09	2,11
25 zaldi fiskaletik gorakoak	- de más de 25 c.f.	2,09	2,11
E) <u>TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ATOI ETA ERDI-ATOIAK</u>	E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHICULOS DE TRACCION MECANICA		
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	- de menos de 1000 y más de 750 Kg. carga útil	2,09	2,11
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2.999 kgs.carga útil	2,09	2,11
2.999 kg.tik gorako karga e.	- de más de 2.999 kgs. " "	2,09	2,11
F) <u>GAINERAKO IBILGAILUAK</u>	F) OTROS VEHICULOS		
Ziklomotoreak	- Ciclomotores	2,09	2,11

**OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2009.10.27**

Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	- Motocicletas hasta 125 c.c.	2,09	2,11
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 125 hasta 250 c.c.	2,09	2,11
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 250 hasta 500 c.c.	2,18	2,20
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 500 hasta 1000 c.c.	2,18	2,20
Motozikletak 1.000 cctik gora	- Motoc.de más de 1.000 c.c.	2,18	2,20

**1.4 Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Karga tasa aldatzea diktaminatzen da, % 5,84 tik % 5,87 ra, % 0,5 ko iguera orokorra aplikatuz.

Beraz, Ordenantzaren Anexoa horrela geratzen da:

I.	ALDIA – PORCENTAJEAK	
a)	1-5 urte artekoa – De 1 a 5 años	3,6
b)	10 urte artekoa – Hasta 10 años	2,8
c)	15 urte artekoa – Hasta 15 años	2,7
d)	20 urte artekoa – Hasta 20 años	2,7
II.	TARIFA	
	Karga tasa – Tipo de gravamen	% 5,87

**1.4. Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.**

Se dictamina modificar el tipo de gravamen, del 5,84 % al 5,87 %, aplicando el incremento general del 0,5 %.

Por tanto, el anexo de la Ordenanza queda de la siguiente manera :

**2. TASAK**

**2.1.1. Dokumentu administratiboak**

% 0,5- ko iguera orokorra aplikatzea diktaminatzen da eranskin honetako tarifei.

Ondorioz, hauexek izango dira tarifak:

**2.1.1. Expedición de documentos administrativos**

Se dictamina aplicar a las tarifas el incremento general del 0,5 %.

El anexo queda de la siguiente manera:

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK	TASAS POR EXPEDICION DE DOCUMENTOS ADMINISTRATIVOS	EUROAK 2009	EUROAK 2010
<b><u>ZIURTAGIRIAK</u></b>	<b><u>CERTIFICACIONES</u></b>		
A.1 Udal-bulegoetan egindako gainerako agiri edo datuen ziurtapenak, orriko	Otras certificaciones que expidan las oficinas municipales sobre los documentos o datos por folio	2,38	2,39
A.2 Kokapen bereko hirigintzari dagozkion dokumentuen onarpena adierazten duten ziurtagiriak	Certificaciones de acuerdos relativos a la aprobación de documentos de equidistribución urbanística	1.877,00	1.886,40
1. El Ayuntamiento de Tolosa podrá realizar copias electrónicas de documentos en soporte papel o en otros soportes susceptibles de digitalización.
2. Se podrán realizar copias electrónicas de documentos emitidos por el propio Ayuntamiento de Tolosa así como de documentos privados aportados por los interesados/as.
3. Se define como "imagen electrónica" el resultado de aplicar un proceso de digitalización a un documento en soporte papel o en otro soporte que permita la obtención fiel de dicha imagen. Se entiende por "digitalización" el proceso tecnológico que permite convertir un documento en soporte papel o en otro soporte no electrónico en un fichero electrónico que contiene la imagen codificada, fiel e íntegra, del documento.
4. Las imágenes electrónicas tendrán la naturaleza de copias electrónicas auténticas cuando sean realizadas por el Ayuntamiento de Tolosa de conformidad a los siguientes requisitos:
  - a) Que el documento copiado sea un original o una copia auténtica.
  - b) Que la copia electrónica incorpore una firma electrónica válida.
  - c) Que la copia sea realizada por funcionario/a expresamente habilitado/a para ello, o de forma automatizada por los sistemas que se establezcan al efecto. El Ayuntamiento de Tolosa mantendrá un Registro actualizado de funcionarios habilitados para la realización de copias electrónicas a partir de documentos no electrónicos.

#### **ARTÍCULO 17. Destrucción de documentos en formato no electrónico**

1. El Ayuntamiento de Tolosa podrá destruir los documentos originales y las copias auténticas en papel o cualquier otro soporte no electrónico de los que se hayan generado copias electrónicas auténticas, siempre que se respeten los siguientes requisitos:
  - a) La destrucción requerirá propuesta del servicio de archivo o del que haya tramitado el procedimiento y resolución de la Junta de Gobierno del Ayuntamiento. En el expediente de eliminación de documentos se determinará:
    - ⊗ La naturaleza de los documentos a eliminar
    - ⊗ Los procedimientos administrativos afectados
    - ⊗ Las condiciones y garantías del proceso de destrucción
    - ⊗ Las personas u órganos administrativos responsables del proceso
    - ⊗ Informe acerca de los riesgos relativos al supuesto de eliminación de que se trate, con mención expresa de las garantías de conservación de las copias electrónicas.
  - b) En todos los casos la destrucción de los documentos se hará de conformidad a lo establecido en las normas legales vigentes y, en particular, a la relacionada con la protección de datos de carácter personal.

#### **ARTÍCULO 18. Documentos electrónicos emitidos por los interesados/as**

1. Los ciudadanos/as podrán aportar documentos electrónicos en aquellos expedientes en los que sean interesados/as.
2. La fidelidad de las imágenes electrónicas de los documentos en soporte papel se garantizará mediante firma electrónica de los interesados/as, de conformidad con el art. 35.2 de la *Ley 11/2007 de 22 de junio sobre acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos*. En estos casos el Ayuntamiento podrá solicitar el cotejo con el original del documento.
3. Los documentos y las imágenes electrónicas aportadas por los interesados/as deberán ajustarse a formatos y estándares válidos para el Ayuntamiento de Tolosa. En la sede electrónica se publicará la relación actualizada de tales formatos y estándares.

2009.10.27

**ARTÍCULO 19. Obtención de copias electrónicas por los interesados/as**

Los ciudadanos/as podrán ejercer el derecho a obtener copias electrónicas de los documentos electrónicos que formen parte de procedimientos en los que tengan condición de interesados/as de acuerdo con lo dispuesto en la normativa reguladora del respectivo procedimiento.

La obtención de la copia se hará a costa del interesado/a, pudiéndose hacer extractos de los justificantes o documentos o utilizar otros métodos electrónicos que permitan mantener la confidencialidad de aquellos datos que no afecten al interesado.

**ARTÍCULO 20. Archivo electrónico de documentos**

1. El Ayuntamiento de Tolosa conservará en formato electrónico todos los documentos electrónicos que formen parte de un expediente administrativo, así como aquellos otros que, aun no formando parte de un procedimiento administrativo reglado, constituyan evidencia de las relaciones entre los ciudadanos/as y el Ayuntamiento.
2. La conservación de los documentos electrónicos podrá realizarse bien de forma unitaria o mediante la inclusión de su información en bases de datos. Para ello se garantizará la reconstrucción de los formularios o modelos electrónicos origen de los documentos así como para la comprobación de la firma electrónica de dichos datos.
3. El calendario de conservación de los documentos electrónicos estará conforme con la normativa vigente en materia de gestión documental.
4. Para preservar la conservación, el acceso y la legibilidad de los documentos electrónicos archivados, podrán realizarse operaciones de migraciones, emulaciones y conversión de los documentos electrónicos, de acuerdo con las normas sobre copiado de dichos documentos vigentes en cada momento.
5. Los responsables de los archivos electrónicos promoverán el copiado auténtico con cambio de formato de los documentos y expedientes del archivo tan pronto como el formato de los mismos deje de ser operativo y suponga un riesgo cierto de pérdida de información.

**EXPEDIENTE ELECTRÓNICO**

**ARTÍCULO 21. Expediente electrónico**

1. Los expedientes electrónicos se diseñarán siguiendo los trámites administrativos legalmente previstos en cada procedimiento y su aplicación específica en el Ayuntamiento de Tolosa.
2. Cada expediente electrónico dispondrá de un código que permita su identificación. Se procurarán utilizar sistemas que faciliten el intercambio interadministrativo.
3. Los expedientes electrónicos estarán integrados por documentos electrónicos, pudiendo incluir asimismo otros expedientes electrónicos si así lo requiere el procedimiento. Excepcionalmente, cuando la naturaleza o la extensión de determinados documentos a incorporar al expediente no permitan o dificulten notablemente su inclusión en el mismo, deberán incorporarse al índice del expediente sin perjuicio de su aportación separada.
4. Los documentos que se integran en el expediente electrónico se ajustarán al formato o formatos de larga duración y accesibles mediante herramientas de uso gratuito al alcance de todos los posibles usuarios.
5. De conformidad con el art. 37 de la *Ley 11/2007 de 22 de junio sobre acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos* los procedimientos administrativos gestionados en su totalidad electrónicamente por el Ayuntamiento de Tolosa se pondrá a disposición del interesado/a un acceso restringido donde consultar, previa identificación, al menos la información sobre el estado de tramitación del procedimiento, salvo que la normativa aplicable establezca restricciones a dicha

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

información. La información sobre el estado de tramitación del procedimiento comprenderá la relación de los actos de trámite realizados, con indicación sobre su contenido, así como la fecha en la que fueron dictados. En el resto de los procedimientos se habilitarán igualmente servicios electrónicos de información del estado de la tramitación que comprendan, al menos, la fase en la que se encuentra el procedimiento y el órgano o unidad responsable.

### DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Primera.-** La presente ordenanza contempla aspectos de la Administración Electrónica que están disponibles en el Ayuntamiento de Tolosa en la actualidad o que lo estarán en muy breve plazo de tiempo. Otros aspectos, como el de la Facturación Electrónica, quedan temporalmente fuera de la presente Ordenanza hasta que se definan los sistemas y procedimientos que se utilizarán en el Ayuntamiento, momento en que se propondrá su actualización para incluirlos.

**Segunda.-**

### DISPOSICIONES FINALES

**PRIMERA.-** La presente Ordenanza entrará en vigor, a tenor de lo establecido en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, una vez publicado su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y transcurrido el plazo previsto en el art. 65.2 del mismo texto legal.

**SEGUNDA.-** La Administración Electrónica del Ayuntamiento de Tolosa se regulará por lo previsto en la presente Ordenanza, y en lo no dispuesto en ella por lo señalado en la Ley 11/07 y demás normativa de aplicación.

**TERCERA.-** La presente ordenanza se publicará íntegramente en la sede electrónica del Ayuntamiento de Tolosa <http://www.tolosakoudala.net>

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

**ANEXO I**

**INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA A PUBLICAR EN LA SEDE ELECTRÓNICA**

Art. 4-1. Sistemas de firma electrónica admitidos por el Ayuntamiento de Tolosa:  
IZENPE, ONA, DNI-e

Art. 13-3. Medios de notificación electrónica admitidos por el Ayuntamiento de Tolosa:  
Sistema EUROHELP Consulting (cuando esté operativo)

Art. 6-4-c) y Art. 18-3. Formatos y estándares de documentos e imágenes electrónicas admitidos por el Ayuntamiento de Tolosa:

Documentos: ODT, ODS, TXT, RTF, HTML, DOC, XLS

Imágenes: JPG, JPEG, PDF, BMP, GIF, TIF, TIFF, ODG, DWG

**ANEXO II**

**REGISTRO DE FUNCIONARIOS CON HABILITACIONES ESPECIALES**

Art. 4-6. Relación de funcionarios habilitados para la identificación o autenticación de ciudadanos/as:  
XXXXXXXXXX

Art. 15-3-b). Relación de funcionarios expresamente habilitado para la realización de copias electrónicas:  
XXXXXXXXXX

Art. 16-4-c). Relación de funcionarios expresamente habilitado para la realización de copias electrónicas a partir de documentos no electrónicos:  
XXXXXXXXXX

2009.10.27

**TOLOSAKO UDALEKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ALDERDI BATZUEN  
ORDENANTZA ERREGULATZAILEA**

**Zioen adierazpena**

Geroz eta gehiago ari dira zabaltzen informazio teknologia berriak bizitzako arlo guztietan. Horrek beharrezkoa egiten du administrazio elektronikoa herritarrarengana hurbiltzea gestioak egiteko, udal bulegoetan agertu beharrik izan gabe.

XXI. mendeko erronka elektronikoen mailan egon nahi duen administrazioak komunikazio elektronikoen erabilera bultzatu behar du, bere tramitazio eta prozeduretan aurrerapen eta berrikuntza prozedurak ezarriz, herritarrei eskainitako zerbitzuak ahalik eta efikaziarik handienarekin emateko baliagarriak diren neurrian.

Udalaren erantzukizuna da konfiantza eta segurtasuna sortaraztea tramitazio elektronikoen erabileran, bere zerbitzura jarriz aurrerapen teknologikoak. Azken batean, administrazioaren erantzukizuna da bidea moztea gestio presentzialaren eta elektronikoen artean, eta gure erantzukizuna da herritarra eta administrazioa elkarrengandik urruntzen dituen hesia murrizteko ekimenak aurrera eramatea.

*Ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoak*, xedatuaren arabera, 2009ko abenduaren 31rako tokiko administrazioek aukera eman behar die herritarrei, hain zuzen ere, baliabide elektronikoen erabilera dela eta, lege horrek aitortzen dizkien eskubideez baliatzeko:

- 12.- Administrazioarekin harremanak izateko bitartekoa aukeratzea.
- 13.- Administrazioak izan badituen datuak eta agiriak aurkeztu behar ez izatea.
- 14.- Berdintasuna, zerbitzuetarako sarbide elektronikoa.
- 15.- Interesdunak jakitea prozeduren tramitazioa zertan den.
- 16.- Dokumentuen kopia elektronikoa eskuratzea.
- 17.- Gordetzea formatu elektronikoa espedienteko dokumentuak.
- 18.- Beharrezko diren identifikazio elektronikoko bitartekoak lortzea. Pertsona fisikoek aukera izango dute Nortasun Agiri Nazionalaren sinadura elektronikoa erabiltzeko, edozein administrazioarekin egin beharreko edonolako izapide elektronikotan.
- 19.- Sinadura elektronikoko beste edozein sistema erabiltzea.
- 20.- Segurtasun eta konfidentzialtasun bermea.
- 21.- Kalitatea, baliabide elektronikoen bidez emandako zerbitzu publikoetan.
- 22.- Administrazioekin harremanetan jartzeko aplikazioak edo sistemak aukeratzea, baldin eta estandar irekiak erabiltzen badituzte.

**1. ARTIKULUA.- Xedea.**

Ordenantza honen xedea da erregulatzeko Tolosako Udalaren administrazio elektronikoen alderdi batzuk. Hauexek:

- f) Tolosako Udalaren Egoitza Elektronikoa sortzea eta bere funtzionamendua erregulatzeko.
- g) Identifikazio elektronikoko sistemak definitzea.
- h) Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoa sortzea eta bere funtzionamendua erregulatzeko.
- i) Jakinarazpen elektronikoen funtzionamendua erregulatzeko.
- j) Dokumentu eta espediente elektronikoen zenbait alderdi definitzea.

**2. ARTIKULUA.- Lege esparrua.**

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa
- Ekainaren 22ko 11/2007 Legea, herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoa
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Entitateen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

### EGOITZA ELEKTRONIKOA

#### 3. ARTIKULUA.- Egoitza Elektronikoa.

6. Herritarrak Zerbitzu Publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/07 Legeko 10. artikulua ondo onartarako, **TOLOSAKO UDALAREN EGOITZA ELEKTRONIKOA** eratu da <http://www.tolosakoudala.net> web orrian.
7. Era berean, egoitza elektronikoaren atalak izango dira "tolosa.net" eta "tolosa.org" domeinuetako web orriak, espresuki <http://www.tolosakoudala.net> web orrian lotura dutenak.
8. Egoitza elektronikoaren jardura esparruan honako ente hauek daude sartuta: Tolosako Udala, "Aitzol" Udal Euskaltegia, Tolosako Musika Eskola, "A.M. Labaien" Kultur Etxea, "Aranburu" Udal Liburutegia, "Errota" Haur Liburutegia, Tolosa Lantzen, Erretengibel, Tolargi, Iurreamendi eta etorkizunean sor daitezkeenak.
9. Egoitza elektronikoaren bidez Udalaren edo herritarren autentifikazioa behar duten jarduketa, prozedura eta zerbitzuak egin ahal izango dira.
10. Egoitza elektronikoaren kudeaketaz arduratuko den unitate administratiboa Tolosako Udaleko Idazkaritza departamentua da.

### IDENTIFIKAZIO ELEKTRONIKOA

#### 4. ARTIKULUA.- Identifikazio Elektronikoa.

6. Pertsonak eta entitateak Tolosako Udalarekin dituzten harremanetan erabili ahal izango dituzte sinadura elektronikoko ziurtapenak, Udalak baliozkoak jotzen dituenak, haien onartzen dituzten prozedura eta jarduketarako. Tolosako Udalak baliozkotzat jotzen dituen sinadura elektronikoko ziurtapenen zerrenda eguneratua egoitza elektronikoan argitaratuko da.
7. Sinadura elektronikoaren erabilerak ez du baztertuko, kasua denean, dokumentuan edo komunikazio elektronikoan prozeduraren arabera beharrezkoak diren identifikazio datuak jartzeko obligazioa.
8. Dokumentuen aurkezpen elektronikoa hirugarren baten ordezkari gaitutako pertsona edo entitateak jarduketa bakoitzerako beharrezkoa den ordezkariatasuna eduki behar dute, 30/1992 Legeko 32 artikulua dioen gisan.
9. Artikulu honetako 1. apartatua adierazitako sistemarik ez badago, eta *Herritarrak Zerbitzu Publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/07 Legeko 22. artikuluan* aurreikusitakoa betetzeko, identifikazioa edo autentifikazioa egin ahal izango du, baliozko moduan, udal funtzionario batek, daukan sinadura elektronikoaren sistema erabiliz. Horretarako, herritarrak identifikatu egin beharko du bere burua eta bere kontsentimendua eman. Hori guztia jasota geratuko da desadostasun edo auzi kasurik sortzen den kasurako.
10. Tolosako Udalak eguneratuta edukiko du aurreko apartatua erregulatutako identifikazio edo autentifikaziorako gaitutako funtzionarioen erregistroa.

### ERREGISTRO ELEKTRONIKOA

#### 5. ARTIKULUA.- Erregistro Elektronikoaren sorrera.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

6. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoa erregistro informatiko bat da, *on line*, eta aukera ematen du eskaerak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko eta bidaltzeko, egoitza elektronikoan publikatzen diren prozedura eta tramiteen gainean.
7. Erregistro elektronikoak ez du ordezkatzen betiko erregistro orokorra. Erregistro elektronikoa interesatuaren esku dagoen beste baliabide bat da eta helburu hauek ditu: Tolosako Udalarekiko harremanetan azkartasuna, efikazia eta erosotasuna.
8. Inola ere ez dute izango erregistro elektronikoaren izaera enplegatu publikoei edo udal unitate administratiboei asignatutako postontzi elektroniko korporatiboek.
9. Ez dute izango, era berean, erregistro elektronikoaren izaera faxak hartzeko tresnek, baldin eta ez bada ordenamendu juridikoan espresuki aurreikusitako kasuan.
10. Erregistro elektronikoaren kudeaketaz arduratuko den unitate administratiboa Tolosako Udaleko Idazkaritza Orokorra da.

### **6. artikulua.- Erregistro Elektronikoen funtzionamendua.**

8. Erregistro Elektronikoa egunean hogeita lau ordu egongo da funtzionamenduan urteko egun guztietan. Indarrean dagoen data eta ordu ofizialean arituko da.
9. Eskaera, idatzi, kontsulta eta komunikazioen harrera eteteko arrazoi bakarria mantentze tekniko edo operatiboak agintzen duena izango da. Etenaldi horrek behar duen denbora besterik ez du iraungo. Etenaldia aldeztu aurretik ohartarazi behar zaie erabiltzaileei, baldin eta hori egin badaiteke. Planifikatu gabeko etenaldien kasuan, eta egin badaiteke, erabiltzaileak mezu bat ikusi ahal izango du gorabehera horren berri ematen.
10. Datuetako sarbideekiko segurtasun arrazoiengatik, tramitazio elektronikoak aldeztu aurretik eskatuko du erabiltzailearen identifikazioa, ordenantza honetako 4. artikuluan aipatutako ziurtapenen bidez.
11. Erregistro Elektronikoak hurrengo zerbitzu hauek izango ditu:
  - a) Erabiltzaileak emandako datuen egiaztapen eskaera
  - b) Erabiltzaileak aurkeztutako dokumentazioaren Hartu-agiri Elektronikoa, bidaltzailearen nortasun, data, ordu, erregistro zenbaki eta aurkeztutako dokumentuen zerrendarekin. Interesatuak ez badu jasotzen Hartu-agiri Elektroniko egiaztatzailea edota transmisioan errorea edo akatsa egon dela adierazten duen mezua jasotzen badu, horrek esan nahi du eskaera, idatzi edo komunikazioa ez dela jaso eta, hortaz, beste uneren batean aurkeztu beharko duela edo beste bide batzuk erabiliz.
  - c) Aukera fitxategiak eranstea, erabakitzen diren formatuak erabiliz. Interesatuak aurkeztutako dokumentu eta irudi elektronikoek Tolosako Udalarentzat baliozkoak diren formatuetan eta estandarretan egon behar dute. Egoitza elektronikoan publikatuko da formatu eta estandarren zerrenda eguneratua.
12. Erregistro Elektronikoan hartzen diren edo handik bidaltzen diren eskaera, idatzi edo komunikazioek harrera edo irteera denbora-hurrenkera errespetatuz erregistratuko dira. Idazpen guztiak kronologikoki ordenatuta geratuko dira.
13. Erregistro Elektronikoan jasotzen diren tramite eta/edo dokumentu elektroniko guztiak haren unitate arduradunak begiratu, kudeatu eta/edo dagokion unitate administratibora helaraziko ditu.
14. Erregistro Orokor Elektronikoan hartu edo handik bidalitako dokumentu elektronikoaren gainean sortzen diren zalantza edo desadostasunei buruzko gaiak dokumentu elektronikoaren tramitazioan eskuduntza duen organo, unitate administratibo edo entitateak erabakiko ditu.

### **7. ARTIKULUA.- Epeen zenbaketa.**

1. Erregistro elektronikoak, interesatuei zein Tolosako Udalari dagozkien epeen zenbaketa ondoirioetarako, data eta ordu ofizialei jarraituko die.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

2. Egun baliiodunetan edo naturaletan emandako epeen zenbaketa egiteko, interesdunek epeak bete-tezari dagokionez, aurkezpena erregistroan egun baliogaberen batean egin bada, hura hurrengo egun balioduneko lehenbiziko orduan aurkeztu izan balitz bezala hartuko da, baldin eta arauen batek ez badu, berariaz, hura egun baliogabe batean hartzen uzten.
4. Egun baliogabeen egutegia Tolosako herrirako Euskal Autonomia Erkidegoak finkatzen duena izango da.

### **8. ARTIKULUA.- Dokumentuak aurkezteko baldintza orokorrak.**

7. Erregistro Orokor Elektronikoan dokumentuak aurkeztea borondatezko izaera du interesatuentzat, eta *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak*, bere 38.4 artikuluan aipatzen dituen baliabideen erabileraren alternatiba bat da, baldin eta lege izaerako arauen batek besterik ez badu xedatzen.
8. Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez eskaerak, idatziak, kontsultak eta komunikazioak egiteko, eskatzailearen identifikazioa beharrezkoa da oro har.
9. Erregistro Elektronikoan aurkeztutako idatzi, eskaera edo komunikazio baten dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izango da Erregistro Elektronikoan, betiko Erregistro Orokorrean edo arauz ezarritako beste bideren bat erabilita.
10. Erregistro elektronikoak atzera bota ahal izango ditu hurrengo zirkunstantzia hauetan aurkezten diren dokumentu elektronikoak:
  - a) Erregistrotik kanpo geratzen diren organo edo organismoetara zuzendutako dokumentu ez normalizatuak.
  - b) Sistemaren integritatea edo segurtasuna kaltetu lezakeen kode maleziatsu edo gailua duena
  - c) Dokumentu normalizatuak erabiltzen diren kasuan, betetzen ez direnean bete behar diren eremuak edo bere tratamendua oztopatzen duen inkongruentzia edo omisioak dituenen.
11. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, dokumentua bidali duenari horren berri emateko ahaleginak egingo dira, eta adieraziko zaizkio baztertzeko arrazoiak eta, ahal denean, aipatzen zaizkion akatsak konpontzeko modua, eta zein helbidean aurkeztu lezakeen. Interesatuak eskatzen badu, aurkezte saiakeraren eta hura baztertzeko zirkunstantzien justifikazioa bidaliko zaio.
12. Apartatu hauetan adierazten denak ez du salbuesten, kasua denean, betebeharrak honetatik: beste norbaiten izenean jardunez gero, ordezkari izaera egiaztatzea a priori edo administrazio organoek eskatu ondoren, *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 32 Legeak*, azaroaren 30/1992koak, bere 32 artikulua xedatuaren arabera.

### **9. ARTIKULUA. Sarrera erregistroa emateko gai izan daitezkeen dokumentuak.**

4. Tolosako Udaleko Erregistro Orokor Elektronikoan sarrera erregistroa emateko gai izango dira: eskaerak, idatziak, kontsultak eta komunikazioak, baldin eta behar bezala identifikatuta badago bidaltzailea, eskaeraren gaia, Udaleko zein organo edo administrazio unitatera doan, eta administrazio prozedurari buruz aplikagarriak diren arauen esparruan eskatzen diren gainerako datuak.
5. Eskaera, idatzi, kontsulta eta komunikazioen aurkezpen ondorioetarako, sistema informatikoak inprimaki orokorrak edo espezifikoak jarri ditzake erabiltzeko moduan, nahitaez bete behar diren eremuekin, denak erabili beharrekoak, sistemak behar bezala funtzionatuko duela ziurtatzeko.
6. Erregistro Orokor Elektronikoan edukitzeak, hain zuzen ere, edonolako eskaera, idatzi eta bestelako dokumentuak prozedura baten barruan aurkezteko, edota hura erabiltzeko zenbait dokumentu ofizial iriteara emateko, ez du esan nahi jarduketak horiei dagozkien prozedurak onartuta daudenik eta/edo bere osotasunean elektronikoki tramitatu daitezkeenik.

### **10. ARTIKULUA. Erregistro Orokor Elektronikoan dokumentuak aurkeztearen ondorioak.**

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

6. Tolosako Erregistro Orokor Elektronikoan aurkeztutako nahiz zuzenbidean onartzen diren gainontzeko baliabideak erabiliz egindako eskaera, idatzi, kontsulta eta komunikazioek ondorio juridiko berberak izango dituzte.
7. Ondorio hauetarako, interesatuek frogatu ahal izango dute eskaerak eta gainerako dokumentuak aurkeztu izana Hartu-agiri Elektronikoaren bidez. Agiri hori Erregistro Orokor Elektronikoak emango du.
8. Erregistro Orokor Elektronikoak emandako agiri elektronikoa paperean inprimatu ahal izango da edo informatikoki artxibatu.
9. Kasu guztietan, dokumentuak baliabide elektronikoen bidez aurkezteak izan ditzakeen arriskuak beregain hartuko ditu bidaltzaileak, eta ondorioz, Udalak bere zerbitzu publikoen funtzionamenduari egotz dakizkiokeen zirkunstantzien gainean bakarrik erantzungo du.
10. Interesdunak eskaera edo idatzi bera aurkezten badu Erregistro Orokor Elektronikoan eta ohizko erregistroan, sarrera zenbakia begiratuta aurretik doana besterik ez da tramitatuko.

### **11. ARTIKULUA.- Dokumentu ofizialen irteera.**

Beste entitate edo partikularrei zuzendutako idatzi, komunikazio eta gainerako dokumentu ofizialen irteera dela eta, Tolosako Udaleko Erregistro Elektronikoak:

- g) Idatziaren edo komunikazioaren bidaltze ordu eta eguna zehaztuko ditu.
- h) Adieraziko du zein administrazio organok bidaltzen duen.
- i) Adieraziko du zein administrazio organori edo pertsonari bidaltzen zaion.
- j) Gaiaren laburpena emango du.
- k) Idazpen irteerari zenbaki korrelatibo bat ezarriko dio.
- l) Bidaltzen den idatzi edo komunikazio ofizialaren kopia bat gordeko du automatikoki.

### **12. ARTIKULUA.- Datuen babesa.**

- 1.- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatuaren arabera, tramiteetarako bildutako datu pertsonalak "Dokumentuen Sarrera eta Irteera Erregistroa"n sartuko dira. Haren identifikazio kodea Datuak Babesteko Euskal Bulegoa honako hau da: XXXXXXXXXXX.
- 2.- Fitxategiaren entitate arduraduna Tolosako Udala da eta interesatuek sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideaz baliatzeko hona jo behar dute:

**Tolosako Udala**  
**Plaza Zaharra 6-b 20400, Tolosa (Gipuzkoa)**

## **JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOA**

### **13. ARTIKULUA.- Jakinarazpen elektronikoa**

6. Jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira, interesatuak hala egitea eskatu edo baimendu badu edo nahitaezkoa dela erabakita badago.
7. Eskaerak adierazi behar du nahi dela jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez jasotzea eta, era berean, adierazi behar du zein den aukeratu duen baliabidea, Tolosako Udalak baliozkotzat jo eta onartzen duena, jakinarazpen elektronikoa egiteko.
8. Tolosako Udalak jakinarazpen elektronikoa egiteko onartzen dituen baliabideen zerrenda eguneratua egoitza elektronikoa argitaratuko da.
9. Prozedura jakin baterako jakinarazpenak baliabide elektronikoa erabiliz egitea onartua izan dela iritziko da, baldin eta, horretarako baliozkotzat jotzen den moduren batean jakinarazpena egin eta

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

gero, interesatuak jarduketaren bat egiten badu eta horrek suposatzen badu, ebazpenaren edo jakinarazpenaren gai den egintzaren edukia eta norainokoa ezagutzen dituela.

10. Baliabide elektronikoaren erabilera lehenesteko adierazpena eta kontsentimendua baliabide elektronikoaren bidez eman edo eskatu daitezke.

### **14. ARTIKULUA.- Jakinarazpena bertaratze elektronikoaren bidez**

3. Bertaratze elektronikoaren bidezko jakinarazpena honetan datza: interesatuak, behar bezala identifikatuta, bitarteko elektronikoaren bidez eskuratzea administrazio jardun baten edukia.
4. Jakinarazpen elektronikoak hurrengo egoera hauetan egon daitezke:
  - a) Eskura. Interesatuak jakinarazpena jaso duenean bere postontzian eta eskura daukanean hartzeko eta irakurtzeko edo uko egiteko.
  - b) Irakurria. Interesatuak jakinarazpena behar bezala jaso eta irakurri badu. Jakinarazpen sistemak aukera emango du egiaztatzeko zein egun eta ordutan eskuratu den jakinarazpena. Une horretatik aurrera jakinarazpena gauzatzat joko da lege ondorio guztietarako.
  - c) Baztertua. Interesatua postontzira heldu, baina jakinarazpena espresuki ez irakurtzea erabakitzen duenean. Jakinarazpen sistemak aukera emango du egiaztatzeko zein egun eta ordutan heldu den. Une horretatik aurrera jakinarazpena baztertua izan dela iritziko da lege ondorio guztietarako.
  - d) Automatikoki baztertua. Administrazio jakinarazpenen balioaz legeak xedatzen duen 10 eguneko epea iragan bada interesatuak jakinarazpena irakurri edo baztertu gabe. Kasu honetan ere jakinarazpena baztertutzat joko da lege ondorio guztietarako.

## **DOKUMENTU ELEKTRONIKOAK**

### **15. ARTIKULUA.- Dokumentu elektronikoak**

4. Dokumentu elektronikoek hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte baliozkoak izateko:
  - a) Edozein izaerako informazioa edukitzea.
  - b) Informazioa artxibatzea euskarri elektroniko batean, formatu jakin eta ezagun baten arabera.
  - c) Hura individualizatzen utziko duten identifikazio datuak edukitzea, espediente elektroniko batean edo goragoko mailako dokumentu elektroniko batean jasotzeko posibilitatearen kalterik gabe.
5. Dokumentu Administrazio Elektronikoek lehen aipatutako baldintzez gainera 11/2007 Legeko 18 eta 19 artikuluetan aurreikusitako sinadura sistemaz elektronikoki emanak eta sinatuak egon behar dute, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedatutako baliotasun baldintzak bete behar dituzte.
6. Administrazio Dokumentu Elektroniko baten edo interesatuak emandako dokumentu baten kopia elektronikoa egiteko, eta kopia hori kopia kautoa izan dadin, hurrengo baldintza hauek bete behar dira:
  - a) Jatorrizko dokumentu elektronikoa Tolosako Udalaren eskuetan egotea.
  - b) Kopia horretarako espresuki gaitutako funtzionarioak egina izatea edo modu automatikoan, hartarako jarritako sistemen bidez egina. Tolosako Udalak kopia elektronikoak egiteko gaitutako funtzionarioen erregistro eguneratua edukiko du.
  - c) Sinadura elektronikoa duen informazioak eta, kasua denean, denbora zigilua daramanak aukera ematea egiaztatzeko bat datorrela jatorrizkoarekin.
- 4.

### **16. ARTIKULUA.- Dokumentu ez elektronikoetatik lortutako dokumentu elektronikoak**

5. Tolosako Udalak egin ahal izango ditu paperezko dokumentuen edo digitalizatzeko aukera ematen duten bestelako euskarrietan dauden dokumentuen kopiak.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

6. Tolosako Udalak berak sorutako dokumentuen nahiz interesatuek aurkeztutako dokumentu pribatuen kopia elektronikoak egin ahal izango dira.
7. "Irudi elektronikoa" honelaxe definitzen da: paperezko euskarrian edo aipameneko irudia zehatz lortzeko aukera ematen duen bestelako euskarri batean dagoen dokumentuari digitalizazio prozesua aplikatzean lortzen den emaitza. "Digitalizazioa" honelaxe definitzen da: paperezko euskarrian edo bestelako euskarri ez elektronikoa dagoen dokumentu bati aplikatzen zaion prozesu teknologikoa, dokumentuaren irudi kodifikatu, zehatz eta osoa, daukan fitxategi elektronikoa sortzeko.
8. Irudi elektronikoen kopia elektroniko kautoen izaera edukiko dute, Tolosako Udalak egiten baditu hurrengo baldintza hauen arabera:
  - a) Kopiatutako dokumentua jatorrizkoa edo kopia kautoa izatea.
  - b) Kopia elektronikoak sinadura elektroniko baliozkoa edukitzea.
  - c) Kopia egitea horretarako espresuki gaitutako funtzionarioak edo, modu automatikoan, hartarako jarritako sistemen bidez. Tolosako Udalak dokumentu ez elektronikoen abiatuta kopia elektronikoak egiteko gaitutako funtzionarioen erregistro eguneratua edukiko du.

### **17. ARTIKULUA.- Dokumentu ez elektronikoen suntsitzea**

2. Kopia elektroniko kautoak sortu ondoren, Tolosako Udalak suntsitu ahal izango ditu haien jatorrizko dokumentuak eta paper zein bestelako euskarri ez elektronikoen egindako kopia kautoak, baldin eta betetzen badira hurrengo baldintza hauek:
  - a) Artxibo zerbitzuaren edo prozedura tramitatu duenaren proposamena edukitzea eta Udaleko Gobernu Batzarraren erabakia. Dokumentuak deuseztatzeko espedientearen hauxe zehaztu behar da:
    - ⊗ Suntsitu nahi diren dokumentuen izaera
    - ⊗ Ukitutako administrazio prozedurak
    - ⊗ Suntsitze prozesuaren baldintzak eta bermeak
    - ⊗ Prozesuaren pertsona edo organo administratibo arduradunak
    - ⊗ Suntsitzekoa denaren gaineko arriskuei buruzko txostena, kopia elektronikoak kontserbatzeko bermeen aipamen zehatzarekin.
  - b) Kasu guztietan dokumentuen suntsitzea indarrean dauden lege arauak xedatuaren arabera egingo da eta, bereziki, datu pertsonalak babesteko xedapenak betez.

### **18. ARTIKULUA.- Interesatuek igorritako dokumentu elektronikoak**

4. Herritarrek dokumentu elektronikoak aurkeztu ahal izango dituzte interesdun diren espedienteetan.
5. Paperezko euskarrian dauden dokumentuen irudi elektronikoen zehaztasuna interesdunen sinadura elektronikoaren bidez bermatuko da, *ekainaren 22ko 11/2007ko Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzkoak*, bere 35.2 artikuluan xedatuaren arabera. Kasu hauetan Udalak eskatu lezake dokumentuaren originalarekin alderatzea.
6. Interesdunek aurkeztutako dokumentu eta irudi elektronikoen Tolosako Udalarentzat baliozkoak diren formatuetan eta estandarretan egon behar dute. Egoitza elektronikoa publikatuko da formatu eta estandarren zerrenda eguneratua.

### **19. ARTIKULUA.- Interesdunek dokumentuen kopia elektronikoak eskuratzeko**

Herritarrek eskubidea dute, eta horretaz baliatu ahal izango dira, interesdun diren prozeduretako dokumentu elektronikoaren kopia elektronikoak eskuratzeko, dagokion prozedurako arautegi erregulatuaren arabera.

Kopiaren kostua interesdunaren kargura izango da, eta agiri edo dokumentuen laburpenak egin litezke, edo bestelako metodo elektronikoak erabili, interesdunari ez dagozkion datuen konfidentzialtasuna babesteko.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

### **20. ARTIKULUA.- Dokumentuen artxibatze elektronikoa**

6. Tolosako Udalak gorde egingo ditu formatu elektronikoa administrazio espediente bateko dokumentu elektronikoko guztiak eta, administrazio prozedura arautu batekoak ez izan arren, herritarren eta Udalaren arteko harremanen ebidentzia direnak.
7. Dokumentu elektronikoen kontserbazioa bi erataraino egin liteke: modu unitarioan edo informazioa datu basetan sartuz. Horretarako, dokumentuen jatorrizko formulario edo eredu berreraiketa bermatuko da, besteak beste, aipatu datuen sinadura elektronikoa egiaztatuz.
8. Dokumentu elektronikoen kontserbazioa egitegiak agiriaren kudeaketaz indarrean dagoen arautegia bete behar du.
9. Artxibatutako dokumentu elektronikoen kontserbazioa, haietara heltzeko eta haien irakurgarritasuna zaintzeko, dokumentu elektronikoen migrazio, emulazio eta konbertsio eragiketak egin litezke, aipatu dokumentuen kopiak egiteko unean-unean indarrean dauden arauak errespetatuz gero.
10. Artxibo elektronikoen arduradunek kopiatze kautoa eragingo dute, artxiboko dokumentu eta espedienteen formatua aldatuz, euren formatuak operatibo izateari utzi bezain laster, informazioa galtzeko arriskua badago.

## **ESPEDIENTE ELEKTRONIKOA**

### **21. ARTIKULUA.- Espediente elektronikoa**

6. Espediente elektronikoen prozedura bakoitzean lege aurreikusitako tramite administratiboaren arabera diseinatuko dira, Tolosako Udalean bere aplikazio espezifikoak aintzat hartuta.
7. Espediente elektronikoen bakoitzak kode bat edukiko identifikatzeko. Administrazioen arteko trukea egiteko aukera ematen duten sistemak erabiltzen ahaleginduko da.
8. Espediente elektronikoen dokumentu elektronikoen osaturik egongo dira. Espediente elektronikoen ere egon daitezke barruan, prozedurak hala eskatzen badu. Salbuespen gisa, espedientean sartu beharreko dokumentuen ezaugarri edo neurriarengatik ezinezkoa denean espedientean sartzea edo sartzeko zailtasun handiak daudenean, espedienteko aurkibidean konstatatuko da, bereizita ezartzearen kalterik gabe.
9. Espediente elektronikoen integratutako dokumentuak iraupen luze formatu edo formatuetan egongo dira eta eskuragarriak izango dira erabiltzaile izan daitezkeen guztientzat doakoak diren tresnen bidez.
10. *Herritarrek Zerbitzu Publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeko 37. artikuluekin bat etorritik, Tolosako Udalak erabat elektronikoki kudeatzen dituen administrazio prozeduretan interesdunaren eskura jarriko da, sarrera mugatuarekin, alde aurretik identifikatuta, gutxienez prozeduraren tramitazioaren egoerari buruzko informazioa, baldin eta aplikaziozko arauak aipatu informazioa emateko mugak ezartzen ez badituzte. Prozeduraren tramitazio egoerari buruzko informazioan honako datu hauek agertuko dira: tramite egintzen zerrenda, edukiaren gaineko informazioa eta bakoitzaren data. Gainontzeko prozeduretan ere tramitazio egoeraren gaineko informazio zerbitzu elektronikoen egokituko dira. Horietan, adieraziko da, gutxienez, prozedura zein fasetan dagoen eta zein den arduratu den organo edo unitatea.*

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

**Lehen.**- Ordenantza honetan jasota daude, batetik, gaur egun Tolosako Udalean eskuragarri dauden administrazio elektronikoko hainbat alderdi eta, bestetik, epe laburrean eskuragarri egongo direnak.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

Beste alderdi batzuk, fakturazio elektronikoarena esaterako, aldi baterako Ordenantza honetatik kanpo geratu dira, Udal honetan erabiliko diren sistemak eta prozedurak zehaztu arte. Une horretan haren eguneraketa proposatuko da bertan sartu ahal izateko.

**Bigarrena.-**

### AZKEN XEDAPENAK

**LEHENA.-** Ordenantza hau, Erregimen Lokalaren Oinarriak erregulatzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta aipatu legeko 65.2 artikuluan aurreikusitako epea bukatzen denean sartuko da indarrean.

**BIGARRENA.-** Tolosako Udaleko Administrazio Elektronikoa Ordenantza honek erregulatuko du. Ordenantzan aurreikusten ez diren gaietan, 11/07 Legeari eta aplikaziozkoak diren gainontzeko araei jarraituko zaie.

**HIRUGARRENA.-** Ordenantza hau, oso-osorik, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da: <http://www.tolosakoudala.net>

OHIZKO OSOKO BILKURA

2009.10.27

**I ERANSKINA**

**INFORMAZIO OSAGARRIA, EGOITZA ELEKTRONIKOAN ARGITARATZEKOA**

4-1 artikulua. Tolosako Udalak onartzen dituen sinadura elektronikoko sistemak:

IZENPE, ONA, DNI-e

13-3 artikulua. Tolosako Udalak onartzen dituen jakinarazpen elektronikoko baliabideak:

EUROHELP Consulting sistema (operatiboa denean)

6-4-c) eta 18-3 artikulua. Tolosako Udalak onartzen dituen dokumentu eta irudi elektronikoen formatuak eta estandarrak:

Dokumentuak: ODT, ODS, TXT, RTF, HTML, DOC, XLS

Irudiak: JPG, JPEG, PDF, BMP, GIF, TIF, TIFF, ODG, DWG

**II ERANSKINA**

**GAIKUNTZA BEREZIKO FUNTZIONARIOEN ERREGISTROA**

4-6 artikulua. Herritarren identifikazioa edo autentifikazioa egiteko gaitutako funtzionarioen zerrenda:  
XXXXXXXXXX

15-3-b) artikulua. Kopia elektronikoak egiteko espresuki gaitutako funtzionarioen zerrenda:  
XXXXXXXXXX

16-4-c) artikulua. Dokumentu ez elektronikoen kopia elektronikoak egiteko espresuki gaitutako funtzionarioen zerrenda:  
XXXXXXXXXX